


Javier Villalobos: "Itzultzeko irrikitan nago"

Hogeita hiru urte egin berriak eta kirolaren bi aldeak ezagutu ditu epe laburrean. Altuera jauzian gorengo mailan egon os-tean, urtebete eman du itzalean belaunetako lesio gogor baten ondorioz. Bartzelonan egon da tarte honetan berrabiltze lanak egiten, eta nahiz eta une gogorak pasa dituen, berriz ere bueltatzeko gogo biziz da.



DROGETENITTURRI- ZEIN LESIO IZAN DUZU? NOLA GERTATU ZIT- ZAIZUN?

Javier Villalobos- Ez da bapatean sortu zaidan lesioa izan; altuera jauzian belaunek asko sufritzen dute, eta urte-tan belaunek eginiko esfortzuari ondo eutsi dioten arren, azkenean hautsi eta ebakun-tza egin behar izan didate, bi belaunetako errotulak berriz-tatzeko.

D.- ZENBAT DENBORA EGON ZARA GELDIRIK?

J.V.- Guztira urtebete in-guru. Ebakuntza egin ondoren, hilabete t'erdia egon nin-tzen Bartzelonan. Ondoren, Ermura etorri eta hemen ja-rraitzen dut berrabiltze proze-sua, beti ere Espainiako altue-ra jauziko medikuen begirada-pean.

D.- NOLA ZAUDE PSIKOLOGIKOKI?

J.V.- Kolpe gogorra izan da niretzat, baina argi dut au-rrera egin behar dudala. Altuera jauzian goian egon os-tean, 2'23 metrotako jauziare-kin, eta bapatean hau guztia gertatzea kirolaren bi aldeak direla badakit. Zenbaitzuek, altuera jauzia utzia ote nuen ere galdetu izan didate.

D.- UZTEA, HAINBESTE URTE ATLETISMOARI ESKAINI OSTEAN...

J.V.- Bai, nere bizitzaren zati handiena atletismoari es-kaini diot. Luzera jauzia, kros-sa, guztiak egin nituen, baina nerea altuera jauzia zela ohar-tu nintzen.

D.- NON EGITEN DITUZU ENTRE-NAMENDU SAIOAK? ZEIN ERATAKO ARIKETAK?

J.V.- Gaur egun, Sallabenteko zainketa gelan entrenatzen dut, edo bestela Eibarko Unbe polikiroldegira joaten naiz, izugarrizko bali-a-bideak eskaintzen baitizkida-te. Gainera, Ermuan ez dut beste aukera gehiagorik. Nire lana, gehien bat zangoetan in-darra hartzea, footina, eta lan psikikoan oinarritzen da.

D.- ZENBAT ARI DIRA ANTONIO CID-EKIN ALTUERA JAUZIAN?

J.V.- Ni hasi nintzenetik, gehitzen joan da kirol honeki-ko zaletasuna. Gaur egun, 20 bat gazte arituko dira Antonio Cid-en gidaritzapean.

D.- ZEINTZUK DIRA ZURE HU- RRENGO ERRONKA NAGUSIAK?

J.V.- Aurrena, ondo sen-datzea belauneko lesioa, bes-tela beste ebakuntza bat egin beharko baitidate. Ondoren, txapelketetan parte hartzeko irrikitan nago, saltatzeko gogo biziz nago. Gaur egun, bi me-tro eta 15 zentimetro saltatze-ko gai naizela uste dut.

D.- GUSTOKO DUZUN ALTUERA JAUZIKO NORBAIT?

J.V.- Gehien Javier Sotomayor gustatzen zait. Bere teknikak eta nireak pare-kotasun handia dutela uste dut.

D.- AZKENIK, ZERBAIT GEHITU NAHIKO ZENUKE?

J.V.- Bai, esan nahi nuke irrikitan nagoela berriz ere ekiteko, gehien bat nere bu-ruari lehen izan nintzen berbe-ra izan naitekeela erakusteko.

*Testua: Asier Ibaibarriaga
Argazkiak: Santos Vega*



Laburrean

"Pato" k harrijasotzeari uzten dio

* Jose Mari Pato "Pato I" harrijasotzaile ermuarrak, hainbat urtez bere kirola izan den harrijasotzea uztea erabaki berri du. Gaztela-Leon Kultur Elkarteak antola-

turiko kultur astearen barne ospatutako herri-kirol jaia-l-dian egin zuen bere azken erakustaldia. Aurrerantzean, bere semeari laguntzea izango du helburu nagusi. Hau ere bere aita bezalaxe, herri handiekin aritzeko itxarope-nez omen da.

Eskubaloi talde berri bat

* Hasi berria da aurtengo eskubaloi denboraldia. Guztira bost talde aurkeztuko ditu Ermuko eskubaloi taldeak, iaz baino bat gehiago. Neskei dagokionez, Euskal Ligan barne bi talde arituko dira, jubenil eta ka-

dete mailan. Beste talde bat, probintzi mailan arituko da kadete mailan, eta beste bat senior mailan, aurtengo berrikuntza nagusia. Mutilen taldeari dagokionez, iaz be-zalaxe, senior mailan parte hartuko du.

Betis taldearen peña berria

* ●rain dela egun gutxi eratu zuten Alfonso Perez "Alfonso", Betis futbol taldeko jokalaria izena era-mango duen peña berria. Futbolari dagokionez,

Ermuan sortu den bigarren peña dugu hau, Athletic-za-leen "Herri-muga"ren ostean. Peñaren aurkezpen ofi-ziala urtarrilean izango da, Alfonso Athletic-en aurka jokatzeko Bilbora etorriko dela aprobetxatuz.

SIRIMIRI TABERNA

Pintxo eta bokatak

Erdiko kale, 11

Naturopatia-Iridologia-Elikapena-Dietetika-Laserra

**Joseba Echeberria
NATURISTA**

Valdespinako Markesa, 5 Ordua hartzeko:
48260 ERMUA (Bizkaia) (943) 170 543

R.P.S. 224/96 Ez da osasun-zentrua

DROGETENITTURRI

1997ko URRIA

Asier Ibaibarriaga